



1974 - 2024 • ZABALTZEN

# Irakasleon Akordio Arautzaile berria

## Zer jaso da orain arte?

Irakasleon lan-baldintzak arautzen dituen Akordio Arautzailearen (Lan-hitzarmenaren) negoziazioa amaierara iristen ari da. LAB etengabe aritu da Hezkuntza Sailak hasieran egindako proposamena hobetzeko ekarpenak egiten, eta negoziazioen ondorioz ondoko neurriak adostu dira irakasleoi dagokigunez:

## Gazte-berritzeko neurriak

- Erretiroa edo aurre-erretiroa hartu aurreko hamabi hilabeteetan eskola-jardunaren murrizketa metatzeko gazteberritze neurria, ordainsari eta kotizazioak osorik mantenduz, zerbitzu urteen arabera: 20 urte = 12 hilabete, 15-20 urte bitarte = 8 hilabete, 10-15 urte bitarte = 4 hilabete.
- Aurreko neurria hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten langileentzat, lektiboen 1/3 murrizketa 60 urtetik aurrera 64ra bitarte hartzeko aukera, 3 urtez, 1/2 murrizketa 65etik aurrera.
- Gaur egun lektiboen 1/3ko murrizketa duten karrerako funtzionarioei eskola-jardunaren murrizketa metatua hartu bitarte neurri trantsitorioa adosteko aukera.
- Aukera bat zein beste, bitarteko funtzionarioentzako ere.

## Enplegua

- Behin-behinekotasuna %5a baino baxuagoa izatea egiturazko plazetan.
- Lanpostuen Zerrendan finkatuko dira, urtero, koiunturalak ez diren lanpostu guztiak.
- Lekualdatze-lehiaketetan deitzen diren lanpostuen kopurua, egiturazko kontsideratzen diren lanpostu guztiak izango dira.

## Lan-zamak

- HH/LH: tutoreei bi ordu lektiboren jaitsiera, gehienez ere 21 ordu lektibo.
- BH/Lanbide Heziketa: ko-tutoretza ordutegiak parekatuko dira eta kotutoretza gauzatzeko baldintzak aurrez sindikatuokin negoziatuko da.
- ☑ Irakastordua murrizteko aukera esparruka eta berrikuntza-proiektuetan lan egiten duten irakasleei.

## EPE

- 3 urtero EPE deialdia.
- Gaitegia eta material berriak, euskaraz eta eguneratuak
- Berariazko neurriak 55 urtetik gorakoentzat
- Lanpostu guztiak C1 hizkuntza eskakizuna euskaraz

## Lizentziak eta baimenak

- Edoskitze metaturako egunek, gaur egun legeak ezartzen duena gainditzea.
- Gurasotasunerako bi aste gehiago oporraldietan eteten ez dutenentzat.
- Adin txikiko seme-alabak kontsultetara laguntzeko baimen berreskuragarria.
- Gaua pasatzea dakarten egonaldiak konpentsatzea.

## Ordezkoak

- 165 egun, izendapena uztailean hilabeteko haborokina edo eskersaria.
- Lehentasun eskubidea indargabetzea.
- Ehuneko ehunetik beherako lanaldia duten plazak, lanaldi partziala duten ikastetxeko irakasleei eskainiko zaizkie.
- Bitarteko langileentzako (interino) baimenak eta lizentziak karrerakoekiko parekatzea.
- Lanpostuak bateragarri egiteko aukera.
- Irailaren 1ean baja-medikuan dauden bitartekoei plaza erreserbatzea azaroaren 30a arte.
- Ordezkapenak, lehen eskola egunetik eskainiko dira. Irailean, lehen lanegunetik.
- Ordezkoen araudi berria alde sozialarekin negoziatuko da.

## Soldatak

- Lehen sexenioa lehen egunetik irakasle guztientzat
  - Berrikuntza
- Arduradunentzako osagarria

## Prestakuntza

- Euskaraz
- Hizkuntza gaitasuna hobetzeko formakuntza
- Irakasleak hizkuntza eta euskal kulturaren transmisioan trebatzea
- Aniztasunari erantzuteko formakuntza

## Lan osasuna

- Osasun sozioemozionalari arreta jartzeko diru partida.

## Administrazio publikoekiko harremana

- Irakasle eta sindikatuentzako aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta berreskuratzen da.

**Azken mahai-negoziatzailean**, bestalde, hurrengo neurriak ere jaso zitezela adierazi genuen:

- LABetik mahaian eskatu genuen 60 urtetik gorakoentzat lektiboen 1/3eko murrizketa 4 ikasturtera luzatzea eta adostasuna egon ezker prestutasuna adierazi zuen administrazioak.

- Ikasturte batean 165 egun edo gehiago lan egin duten langileek uztailea kobratuko dute egindako jardunaldiaren arabera, eta oporraldiari zein aparteko ordainsariari dagokion soldatarako aintzat hartuko da. Abuztuari edo opor egunei dagokionez, berriz, bere kobraketa eta kotizazioa ekainean izango da, langileei ekaineko nominarekin batera likidatuz oporrak eta puntuatuko dute. LABetik berriro ere eskatu dugu 165 egun edo gehiago lan egin duten ordezkoei hilabete osoa kobratu ahal izatea.

- Zirriborroak dio bestetik, ordezkoen zerrenda EPEko puntuazioaren arabera ordenatuko dela 55 urtetik gorako langileentzat jarduketa plan espezifikoak negoziatuz. LABetik adierazi dugu hautagaien zerrendak lan-eskaintza publiko bakoitzaren arabera ordenatzearekin ez dugula bat egiten eta ezinbestekoa dela antzintasuna gailentzea. Besterik litzateke negoziatzea, sistema beste era batera antolatzeke, funtzio publikoan aritzeko galbahe edo gaitasunak frogatzeko proba baten beharra eta hori negoziatzea. Adostasuna egon ezker hori aldatzeko prestutasuna adierazi zuen administrazioak.

- Zirriborroak hurrengo jasotzen du: Etapa guztietan, 30 orduko lanaldia ikastetxean. Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta irakaskuntza espezializatuetako etapetan, ordu horien banaketa aldatu ahal izango delarik ikasturteko aldi guztietan, zehaztutako irakaskuntza-funtzioak betetzeko. LABetik, behin eta berriz aldarrikatu dugu funtzioei eman behar zaiela garrantzia eta ez ikastetxean egon beharreko presentzialtasunari, hori dela eta, mahaian adierazi genuen 30 orduko lanaldi arrunta ikastetxerako izan behar dela, presentziala izateko derrigortasunik gabea.

**LABek 2023ko ekainean Hezkuntza Sailarekin sinatutako Akordio Laboralak negoziatorako bideak ireki eta Hezkuntza Saila sindikatuokin edukien gaineko hainbat adostasunetara iristea ahalbidetu du. Orain, langileen ordezkartzaren gehiengoak eduki hauek babestu eta Lan Hitzarmen berri batean egikaritzeko aukera zabalik dago. LAB lanean ari da egun 2010ekoa den Akordio Arautzailea gainditu eta irakasleok posizio hobe batean kokatzen gaituen akordio berria lortzeko! Eta era berean funtzio publiko osoan grebetan eta borrokan soldatari dagozkion gaiak bertan erabakitzeke; galdutako eros-ahalmena berreskuratzeke igoyerak barne.**

**Denon artean ahalik eta akordio onena lortzeko jardungo gara!**